



COMPRENSIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

DATOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Enseñanza LIBRE / OFICIAL

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **55 minutos**.
- Apague su **dispositivo móvil**.
- Escriba sólo con **bolígrafo azul o negro**.
- No olvide realizar **todas** las tareas.
- Escriba sus respuestas en **las hojas de respuestas**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN TOTAL: /20



HOJA DE RESPUESTAS CTE

TAREA 1	STAR WARS	7 item x 1 p. / 7 PUNTU
----------------	------------------	---------------	-----------------

0	1	2	3	4	5	6	7
B							
✓							

- 0) *Donostian Pink Force fundazioak antolatu dituen erakusketa eta desfilea:*
- Adin txikiko umezurtzei laguntzeko egin da.
 - Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteari laguntzeko da.**
 - Star Wars filma berri baterako dirua biltzeko egin da.
- 1) Donostiak eta Miramar jauregiak beren itxura aldatu dute:
- Atzo goizean beste garai bateko pertsonaiez bete ziren.
 - Donostiako kaleek Erdi Aroko itxura zuten eta jendeak ere bai.
 - Egun hauetan pelikula bat egiten ari baitira.
- 2) Eguraldiari aurre egiteko:
- Aterpe bila gerturatu ziren Miramar jauregira.
 - Euritakoa eskuetan zuen jende andana zegoen Miramar jauregian.
 - Ilara luzea osatzen zuten laser ezpata eskuan zuten gazteek.
- 3) Miramar jauregira hurbildutakoen artean:
- Haurrak ziren nagusi.
 - Helduak baino ez zeuden.
 - Star Wars zaleak ziren guztiak.
- 4) Star Wars pelikulako pertsonaia guztiak:
- Berdin maitatzen ditu jendeak.
 - Bi dira besteak baino maitatuagoak.
 - Arrosa koloredunak dira.
- 5) Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearen helburua:
- Adin guztietako odol emaileak erakartzea da.
 - Gazteak ere odol emaile izatera erakarri nahi ditu.
 - Nagusiki hainbat odol donazio lortzea da.
- 6) Ekitaldi horretako parte-hartzaileak:
- Guztiak ziren Espainiako Estatutik etorritakoak.
 - Hainbat herrialdetatik hurbildutakoak ziren.
 - Hamar mila lagunetik gora zirela esan dezakegu.
- 7) Kristina Urriagak, Pink Force fundazioko idazkariak, dioenez:
- Ospitaleetan eta umeekin argazkiak atera ahal izateak bizipoza ematen die.
 - Friki hutsak diren gazteez osatutako taldea dira.
 - Lagun koadrila honen helburua jende ezagunarekin argazkiak ateratzea da.



TAREA 2	NESKAK ETA MUTILAK ELKAR JOKA	12 item x 0,5 p. /6 PUNTU
----------------	--------------------------------------	------------------	----------------

		Egia/Gezurra	
0	Azaroaren 25a egun berezia izan zen heziketa fisikoko irakasle honen ustean.	E	✓
1	Aitor ziur dago egun horretan emakumeek ez dutela inolako jazarpenik izan.		
2	DBHko 4. mailako ikasleekin bigarren ebaluazioan bizi izandakoak partekatzeke eguna da.		
3	Egun horretan ikasleak dira zein material erabiliko duten eta nola banatuko diren erabakitzen dutenak.		
4	Ikasleek ezin dute hasieran aukeratutako jarduera utzi eta beste batean aritu.		
5	Mutilak futboleant ari diren bitartean neskek saskibaloia nahiago izan dute.		
6	Saioa nesken eta mutilen arteko norgehiagoka batean bukatu dute.		
7	Irakaslea guztiak baloi-eserian ikustean asko poztu dela esan genezake.		
8	Neska eta mutil arteko norgehiagoka horren helburua genero indartsuena nor zen erabakitzea zen.		
9	Futboleant oso ohikoa da horrelako jarduerak ikustea.		
10	Joko egitura gehien helburu nagusia da zein den azkarrena, zein den indartsuena... erakustea da.		
11	Zenbait jardueratan parte-hartzaileek dituzten jarrerak gizartean ikusten ditugun berberak dira.		
12	Munduko kirolaririk onena zein den pentsatzen dugunean gehienoi emakume baten izena datorkigu.		



TAREA 3	«ARRETA PSIKOLOGIKOA ESKATU DUTEN IKASLEEN KOPURUA % 25 IGO DA»	7 ítem x 1 p. / 7 PUNTU
----------------	--	----------------------	------------------------

0	1	2	3	4	5	6	7
B							
✓							



TEXTOS CTE

TAREA 1

Berria egunkarian azaldu zen artikulu hau irakurri ondoren, erantzun galdera hauek 0 adibidean egiten den bezala. 7 item x 1 p.

...../7 puntu

STAR WARS

'Star Wars' filmen sagako pertsonaien erakusketa eta desfilea egin dituzte Donostian. Zaleen Pink Force fundazioak antolatu ditu, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearen alde. Elkartasunaren indarra lagun.

Jakes Goikoetxea Donostia
BERRIA. 2021-11-28 (moldatua)

Donostiak ez zirudien Donostia, eta Miramar jauregiak ez zirudien Miramar jauregia. Bertako antigoaleko gela eta pasabide dotoreetan, garaiz eta lekuz kanpoko pertsonaiak topa zitezkeen atzo goizean. Ewok bat hemen, Yoda harago, har erraldoi itxurako Jabba the Hut gela baten erdian, R2-D2 ezaguna txoko batean -robot horia gela batean, larrosa bestean-, Han Solo garraiorako erabilitako taun-taun baten gainean... eta uniforme zuri eta beltzeko stormtroopers soldadu klasikoak aurrera eta atzera. Star Wars filmen sagako pertsonaiak Donostiako eraikin eta ikono klasikoenetakoan. George Lucas AEBetako zinemagileak 1977an abiatutako unibertsoari egindako keinuak jendearen janzkeran: I am a real Yoda (benetako Yoda bat naiz) edota May the force be with you(indarra lagun izan dezazula) lelo ezaguna jakei itsatsitako petatxuetan. Ilara etengabea izan zen Miramar jauregira sartzeko. Jendeak, baina, laser ezpata ez baizik aterkia zuen eskuan, indarra lagun, boladakako euriari aurre egiteko. Barruan, jendea aurrera eta atzera zebilen. Gehienak geletan banatutako pertsonaien aurrean argazkiak ateratzen, bai haurrak, bai helduak. Tartean zen Gorka Urzelai, Star Wars-en zale amorratua: «Sekulakoa da horrelako ekitaldi bat Donostian izatea». Gogoan du oraindik sagako lehen filma ikusteak eragin zion zirrarara: «Mundu berri bat aurkitu nuen». Pertsonaia gustukoenen artean, bi klasiko: R2-D2 eta C-3PO bereizezinak. Kolore arrosa asko ikus zitezkeen Miramarren. Pink Force fundazioak antolatu baitzituen herenegungo eta atzoko ekitaldiak, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearen alde, odol emaile gazteak erakartzeko asmoz. Pink Force fundazioa 501 Legioko kidea da, Star Wars-ekiko zaletasuna eta grina bizitzeko eta erakusteko elkarte. 501 Legioak 14.000 kide baino gehiago ditu munduan. Alemaniatik, Italiatik, Herbehereetatik, Herrialde Katalanetatik, Espainiatik, Erresuma Batutik... joan ziren atzoko ekitaldian parte hartzera. 'Gaiztoen' elkartasuna Berez, filmetan, 501 Legiokoak gaiztoak dira, Darth Vaderren legioa, inperioa. «Errealitatean, ordea, elkarte guztiok elkartasun ekintzak egiten ditugu», zehaztu zuen Kristina Urtiagak, Pink Force fundazioko idazkariak. «Guk ospitaleetan laguntzeko bokazioa dugu, umeekin bereziki». argazkiren bat ateratzeko eskatzen dizutenean, sekulako bizipoza ematen dizu.



TAREA 2

Berriako artikulua hau irakurri ondoren, baieztapenak Egia (E) ala Gezurra (G) diren adierazi 0 adibidean egiten den bezala.

12 item x 0,5 p.

...../6 puntu

NESKAK ETA MUTILAK ELKAR JOKA

Aitor Zabala Asua Heziketa Fisikoko irakaslea.
BERRIA 2021-11-27 (moldatua)

Azaroaren 25a, egun berezia? Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko eguna. Agian, data bereziak behar dira gure gizartean gertatzen diren zenbait jokabideren gainean argia jartzeko, agian bai. Egund berezia litzateke, bai, egund horretan inongo emakumek, inon, jazarpenik jaso izan ez balu behintzat. Zoritxarrez, ziur nago ez dela horrela izan. Niretzako bai, egund berezia izan zen, ikasleek nahi gabe egin zidaten opariarengatik. Koka gaitetzen: osteguna, esan bezala azaroaren 25a, eguerdia, eguneko azken saioa DBHko 4. mailako ikasleekin. Lehen ebaluazioari amaiera emateko, hiruhileko guztian zehar bizitutakoaren ondorioak partekatzeo erabiltzen dugu azken saioa. Taldeko gogoeta orokorraren ondoren, ikasle bakoitzarekin banaka elkarrizketan aritzen naizen bitartean, beste ikasleak nahi duten horretan aritu daitezke. Taldetxo edo gizabanako bakoitzaren nahien arabera, ikasleek antolatzen dute zein material behar duten eta dugun espazioa nola partekatzen duten. Ikasle hauen kasuan, egia esan, ez dute laguntzarik behar izan ondo konpontzeo. Futbolean aritu nahi zutenek kantxaren erdia hartu dute, eta kopuruz antzekoa zen beste talde batek, beste kantxa erdia. Bai, Heziketa Fisikoko saioa da; ez, gimnasia ez, Heziketa Fisikoa. Ikasle bakoitzarekin ebaluazioaren gorabeherei buruz hitz egiten ari nintzela, ohikoak diren mugimenduez konturatu naiz: ikasle batzuk jarduera batekin hasi eta gero beste batean murgiltzen joan ohi dira. Hasierako bi multzo nagusiak horrela eratu dira: batetik, futbolean mutilak, eta, bestetik, neskak baloi-eseria deituriko jokoan. Maiz izaten da neskaren bat edo batzuk futbolean ere, eta beste askotan aritzen dira denak elkarrekin jokoren batean edo bestean, lehenik, eta, gero, denak futbolean; baina atzo, bi multzoak generoz homogeneoak ziren. Ba, nire harrigarri, saioa neskek eta mutilek elkar joka bukatu dute. Bai, neska eta mutil guztiak baloiekin elkar joka, elkarrekin baloi-eserian jokatzen. Joko horretan urte hauetan guztietan maiz ibili bagara ere, eta beti barre eta algara ugari izaten badira ere, ez da ohikoa izaten «libre» uzten diegan saio bakar horretan gela osoa bere borondatez elkarrekin baloi-eserian aritzea. Eta niretzat behintzat pozgarria izan da. Burua altxatu, baloiak hegan batetik bestera, baloiekin elkar jotzen, lehia bizian bai, baina baita elkar salbatzen, elkarri traizioa ere egiten, baina irribarrea galdu gabe. Zeren eta... «joko bat besterik ez da», edo hobe esanda «a ze joko!». Momentu horretan ez ziren neskak eta mutilak; barkatu, hori ez da zuzena, momentu horretan neskak eta mutilak ziren bai, elkarrekin, neska edo mutil izateari erreparatu gabe. Joko estrategiaren momentuaren araberako jokabideak zituzten eta ez generoaren araberakoak. Zaila da hori bera beste ezaugarri batzuetan oinarritzen diren joko edo jarduera fisikoetan gertatzea, futbolean kasurako. Gure kultura fisikoa osatzen duten jarduera fisikoen artean aniztasuna zabala da, baina, gaur egund, kirol modernoa deituriko ereduko jarduerak dira nagusi batez ere. Horietan, parte-hartzaileen errendimenduen konparaketa da ardatz nagusia, eta, beraz, joko egiturek helburu horretarako baliagarriak behar dute izan: zein den azkarrena, indartsuena, iraupen handiena duena... zein den hoberena, alegia. Konparaketaren egarria aseezina izanik, munduko toki guztietan zehar gertatzen diren kirol errendimenduak eta baita garai



ezberdinetan emandakoak ere alderatzen dira marka eta errekorren bidez. Hori ezinezkoa litzateke zenbait jarduera fisikoetan: zein izan da baloi-eserian marka hoberena egin duena? Mendi ibilaldi batean beharrezkoa al da konparaketa? Errendimenduak konparatu ahal izateko, jarduerak molda genitzake, noski, eta adibidez mendi-txangoa mendi-lasterketa bilakatu, baina jada ez litzateke txoria izango. Argi dago jarduera horietan parte-hartzaileek dituzten jokabideak gizartearen isla izan ohi direla, eta, beraz, gure kultura fisikoan, gizonezkoen ezaugarri fisikoetan oinarrituriko jardueretan errendimenduak konparatzen baditugu, betiere batzuk besteen gaineratik agertuko dira. Lehen ez bezala, orain onartzen hasi gara emakumezkoek ere jarduera horietan aritu daitezkeela, eta maila izugarria erakusten dute gainera; baina markak gizonezkoen «azpitik»... Zein da munduko kirolaririk onena? Zenbatek pentsatu duzue emakumezkoren batean? Galdera asko sortzen zaizkit, baina funtsean erantzun bakarra: gure gizartean, kirola kultura fisikoaren eredu bakartzat sustatzen dugun bitartean (beste eredu batzuk gutxietsita), zaila izango da gure arloak hezkidetzan laguntzea. Ez dut uste eredu jakin bat baztertu behar denik, eredu anitzak proposatu, ezagutu eta biziarazi beharko genituzkeela baizik. Beraz, bai, azaroaren 25a egun berezia izan zen niretzat, ikasleek elkar joka irribarre eta jokabide aski politak oparitu zizkidatelako nire urtebetetze egunean.



TAREA 3

**Berriako elkarrizketa hau irakurri ondoren elkartu galderak
dagokien erantzunarekin 0 adibidean egiten den bezala.**

Erantzun bat sobera dago.

7 item x 1 p.

...../7 puntu

**«ARRETA PSIKOLOGIKOA ESKATU DUTEN IKASLEEN KOPURUA
%25 IGO DA»**

Fernando Tapia Alberdi EHUko errektoreordea
BERRIA 2021-11-26 (moldatua)

Unai Etxenausia Zuzenbidean doktorea da Fernando Tapia Alberdi (Azkoitia, Gipuzkoa, 1969), eta, horrez gain, Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen eta Enplegagarritasunaren errektoreordea eta unibertsitateko arreta psikologikorako zerbitzuaren arduraduna. Tapiak nabarmendu duenez, etorkizunaren inguruko «ziurgabetasuna eta ezinegona» sentitzen dute arreta psikologikoa eskatzen duten ikasle askok. Garaiz esku hartzea da giltzarrietako bat, errektoreordearen ustez.

0) Zer-nolako arreta psikologikoa eskatzen dute zuengana iristen diren ikasleek?

- 1) Zeintzuk dira kezka nagusiak?
- 2) Beraz, prebentzioa da garrantzitsuen?
- 3) Doako zerbitzua da?
- 4) Zergatik diozu hori?
- 5) Gero eta larriagoak dira arazoak?
- 6) Nola antolatzen zarete? Zerbitzua indartu behar izan al duzue?
- 7) Zure ustez, zein da unibertsitatearen funtzioa alor horretan?



- A. Bai, eta bereziki nabarmenduko nuke. Izan ere, artatzen ditugun ikasle gehienek ez dute garatu berezko patologiarik, eta merezi du alor horretan esfortzu bat egitea. Ikusi dugu nola kontsulta gutxirekin ikasle horiek aurrera egiten duten.
- B. *Bi profil nagusi daude. Batetik, arreta eskatzen duten ikasleen %40k buruko desorekaren batekin bateragarria den sintomatologiaren bat erakusten dute. Ikasle horiek jada desorekaren bat garatu dute. Adibidez, estresarekiko erantzun larriak, antsietatea, depresioaldiak, eta alor horretako beste arazo batzuk izaten dituzte. Artatzen ditugun beste %60ek, berriz, osasunean eragiten duten arazoren bat izan arren, oraindik ez dute garatu buruko desorekarik edo nahasmendurik. Bigarren multzo horretan, kasuak antzekoak izan ohi dira. Bizitzari aurre egiteko zailtasunekin edo gizarte giroarekin lotuta egoten dira normalean.*
- C. Bigarren multzoko ikasle gehienek etorkizunaren inguruko ziurgabetasuna eta ezinegona daukate. Arazo eta kezka askoren jatorria itxaropenik ez izatearekin lotu genezake. Gaur egungo egoera nola dagoen ikusita, ez dute irtenbiderik ikusten: soldata miserableak, emantzipatzeko ezintasuna, ikasketak amaitu eta lanik ez aurkitzea, eta horrelako kezkak izaten dituzte. Horregatik, kasu horietan garrantzitsua da lehenbailehen esku hartzea, desorekaren bat sortu aurretik arazo horiei aurre egitea.
- D. Ezintasun horren adibidea da ikasturte honetako lehen hiruhilekoko datua; izan ere, %25 igo da unibertsitateko arreta psikologikorako zerbitzua eskatu duten ikasleen kopurua. Horren zergatia eta datuak ez ditugu guztiz aztertu, baina badakigu datu adierazgarria dela.
- E. Ezkutuan zeuden arazo asko azaleratu ditu. Behingoz behintzat, baztertu egin da laguntza psikologikoa kasurik larrienetan eskatu behar den ideia. Ona da jendeak behar duenean laguntza eskatzea. Horrez gain, pandemia aurretik, lagunekin zerbait hartzea ateratzea edo bidaia bat egitea bezalako ohiturek buruko arazoen ezinegona arintzeko balio zuten.
- F. Noski. Ikasleei ez zaie ezer kobratzen. Uste dugu buru osasuna zaintzea ez dela bakarrik ordaindu dezakeenarentzat.
- G. Pandemia aurretik buruko desoreka bat zeukana okerrago dago orain. Beraz, bai, asko okertu da.
- H. Uste dut ahal den heinean badaudela aurre egin behar zaien arazo batzuk, eta horretan lagundu behar dugu. Baina gu unibertsitate bat gara; neurri bateraino lagundu dezakegu, eta, ondoren, beharrezkoa iruditzen bazaigu, psikologoengana igortzen ditugu kasu batzuk. Funtsezkoa da ikasleei gaur egungo ziurgabetasunari eta frustrazioari aurre egiten eta egokitzen laguntzea. Horregatik, oso garrantzitsua da buruko desorekaren bat garatzeko arriskuan egon daitekeenari laguntzea.
- I. Zuzendari bat daukagu, aldi berean Psikologia Fakultateko irakaslea dena. Bestalde, EHUk kontratatuta ditu bi psikologo kliniko. Hala ere, kanpoko kontratazioekin indartu behar izan dugu lantaldea. Administrazio publiko bat garenez, kontratatzeko muga batzuk ditugu, eta, egoera kritiko honi erantzuteko, bi psikologo pribatu gehiago azpikontratatu ditugu.



COMPRENSIÓN DE TEXTOS ORALES

DATOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Enseñanza LIBRE / OFICIAL

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **40 minutos**.
- Apague su **dispositivo móvil**.
- Escriba con **bolígrafo azul o negro**.
- Cada tarea se escuchará **dos veces**.
- Para cada una, el procedimiento será el siguiente:
 - **dos minutos** para leer el enunciado y la tarea
 - **primera escucha** del documento
 - **un minuto** para responder
 - **segunda escucha** del documento
 - **un minuto** para revisar las respuestas y anotarlas en la **hoja de respuestas** (reverso de esta página)
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN TOTAL: /20



HOJA DE RESPUESTAS CTO

TAREA 1	ARGI IBILI. Euskadi Irratiko albistegia entzungo duzu. Irakurri eskuineko zutabeko ideiak eta adierazi bakoitza zein albisteri dagokion. 0 adibidea da. / 6 PUNTU 6 item x 1 p.
----------------	--	---

A. NAGUSI INTELLIGENT CENTER

0) *Adinekoen bizi kalitatearen inguruan jarduera ekonomikoa sustatu.*

1) *Azken negoziaketa mahaia uztailean izan zen patronalaren negoziazio gaitasun ezaren aurrean.*

B. BARAKALDOKO EGOITZA

2) *Behin-behineko itxierarekin langileek ez dakite zein egoeratan geratuko diren.*

3) *Gizartearen zahartzea aukera bihurtzea du helburu.*

C. BIZKAIKO AUTOESKOLA ELKARTEA

4) *Hamar urte daramatzate lan hitzarmena berritu gabe.*

5) *Jarduera ekonomikoa eta enplegua sortaraziko ditu.*

6) *Uztailean jabetza aldatu zenetik hainbat irregulartasun gertatu dira*

A	B	C
0		



TAREA 2	LITERATUR SARIAK. Entzun Euskadi Literatur Sarietako buruzko Euskadi Irratiko irratsaioa eta esan baieztape hauek egia (E) ala gezurra (G) diren 0 adibidean egiten den bezala. 12 item x 0,5 p. /6 PUNTU
----------------	--	----------------

		EGIA/GEZURRA	
0	<i>Gaur jakin dira 2021eko Euskadi Literatura sarietako irabazleak.</i>	E	✓
1	Josean Elosegik Haur eta Gazte literaturako saria eskuratu du.		
2	Euskarazko literaturan saritutako liburua ELKAR argitaletxeak plazaratu du.		
3	Lizarraldean idatzi duen liburua bideoklub eta zinemari buruzkoa da.		
4	Anjel Lertxundik idatzi duen liburua bilobek asmatutakoa da.		
5	Ipuinean ageri den zuhaitzaren helburua itsasoa ezagutzea zen.		
6	Datorren astean izango sari banaketa.		
7	Artium museoan erakusgai izango dira aipatutako nobela hauek.		
8	Etxartek kaleratu duen poema liburua idazle honek azken poema liburua izango da.		
9	Etxartek poema liburu hau bukatzeko hainbat urte behar izan ditu.		
10	Azken liburu honek ezer gutxi du aurreko liburuekin.		
11	Poemak denboraren arabera antolatu ditu.		
12	Laugarren liburua hamabost urte barru kaleratuko da.		



TAREA 3	ALBISTEGIA Euskadi Irratiko albistegia entzun ondoren aukeratu erantzun zuzena. Erantzuna behean duzun koadroan jarri behar duzu 0 adibidean egiten den bezala. 8 item x 1 p. /8 PUNTU
----------------	--	----------------

0. *San Mames berria futbol zelaia berdez jantziko da:*
 - a) **Ikusmenaren mundu-eguna dela eta.**
 - b) San Patrick eguna ospatzeko.
 - c) Zelaia aldatu dutela jakinarazteko.
1. Zenbat lagun daude ikusmen urria dutenak?
 - a) Europa osoan ez dira 50000 izango.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoan 40000 pertsona.
 - c) Ez dago datu zehatzik baina 40000 inguru mundu osoan.
2. Gasteizen, ze kolorez argizatuko dituzte hainbat eraikin?
 - a) Arrosaz eta berdez.
 - b) Urdinez eta arrosaz.
 - c) Urdinez eta berdez.
3. Esku hutsik elkarteak...
 - a) Dolua aurrera eramaten lagundu nahi du.
 - b) Haur jaio berriei laguntzeko sortua da.
 - c) Haurdunaldian laguntzen die emakumeei.
4. Leioako kanpusean tiroka aritu zen gaztea(k):
 - a) Atxilotuta jarraitzen du Ertzaintzaren esku.
 - b) Epailearen aurrera eraman dute.
 - c) Kartzelara eraman dute atxilotu ondoren.
5. Non erosi zuen gazteak eskopeta?
 - a) Bilboko denda batean.
 - b) Iragarki baten bidez.
 - c) La Salbeko kuartelean.
6. Gazteak...
 - a) erosi ondoren, egunean bertan, lortu zuen lizentzia.
 - b) ez zeukan eskopetak erabiltzeko inolako lizentziarik.
 - c) hilabete batzuk lehenago aterata zuen ehiza-lizentzia.
7. Euskal Herriko Unibertsitateak:
 - a) Ertzaintza ez ezik langileak ere zoriondu ditu.
 - b) Ez dute esan erantzuna azkarra izan zenik.
 - c) Langileak baino ez ditu zoriondu.
8. Argi indarraren prezioa arautzeko...
 - a) Ez dute ezer onartu gehiengoa ados ez dagoelako.
 - b) Ezinezkoa da ezer egitea Europaren esku baitago.
 - c) Kongresuak hainbat neurri hartu ditu.

0	1	2	3	4	5	6	7	8
A								
✓								



MEDIACIÓN ESCRITA

DATOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Enseñanza LIBRE / OFICIAL

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **25 minutos**.
- Apague su **dispositivo móvil**.
- Escriba con **bolígrafo azul o negro**.
- Recuerde: **si no cumple la tarea**, la calificación será 0.
- Escriba su texto en **la hoja que se le facilita**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN MEDIACIÓN ESCRITA: /10
--

PUNTUACIÓN MEDIACIÓN ORAL: /10

PUNTUACIÓN TOTAL MEDIACIÓN: /20
--

PRUEBA DE CERTIFICACIÓN



ERRENTA AITORPENA

2021ko Errenta aitorpena egiteko egun gutxi falta dira. Bizkaiko enpresa bateko administraria zara. Zuzendariak Errenta Aitorpenari buruzko informazioa langileei helarazteko eskatu dizu. Adierazi iezaiezu zein hiru modu dituzten aitorpena egiteko. Gaurtik zenbat egun falta zaizkien eta bulegoetako ordutegia. Gogoratu ez duzula testua hitzez hitz kopiatu behar eta langileek dena ondo ulertu ahal izateko behar beharrezko den informazioa eman behar diezula. Erabili beharreko hizkuntza mailak formala izan beharko du eta 90-120 hitz idatzi beharko dituzu.

..... /10 PUNTU

ERRENTA 21

Apirilaren 4tik ekainaren 30era

AURREZ ZURREKOA

Ogasuneko eta Gertu bulegoetan 8:30etik 19:00etara,
aurreko hitzorduarekin 94 406 44 00 telefonoan.

TELEFONUZ

94 608 3000

8:30etik 19:00etara

DIGITALA

www.bizkaia.eus/errenta

Bizkaia Errenta app

BIZKAIA

FORU ALDUNDIA



MEDIACIÓN ESCRITA

NOMBRE Y APELLIDOS:

Empty rectangular box for writing the name and surnames.



PRODUCCIÓN Y COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

PRUEBA DE CERTIFICACIÓN

DATOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Enseñanza **LIBRE** / **OFICIAL**

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **70 minutos**.
- Apague su **dispositivo móvil**.
- Escriba sólo con **bolígrafo azul o negro**.
- No olvide realizar **las dos tareas**.
- Recuerde: **si no cumple la tarea**, la calificación será 0.
- Escriba sus textos en **las hojas que se le facilitan**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN TOTAL: /20



TAREA 1	IRITZI ARTIKULUA. Herriko aldizkarian Ukrainako haurrei laguntzeko zure herritarrek egin ditzaketen gauzei buruz hainbat gomendio idatzi behar dituzu. Azaldu zein den haien egoera, proposatu herrikideek egin ditzaketen hainbat gauza eta eskatu herriko elkarte eta dendei haien laguntza. 150 hitz inguru./10 PUNTU
TAREA 2	ESKUTITZ INFORMALA. Zure lagun batek idatzi dizu aurtengo udako oportretan elkarrekin norabait joateko komentatuz. Eskainiezazkiozu bi aukera eta adierazi zuri gehien gustatuko litzazukeena. 150 hitz inguru./10 PUNTU

Bilbon, 2022ko maiatzaren 29an.

Kaixo lagun:

Azken urte hauetan ez dugu elkarrekin bidaiarik egiterik izan eta elkarrekin zerbait egiteko garaia iritsi dela iruditzen zait. Badakizu niri edozein aukera ondo iruditzen zaidala eta horregatik zuk aukeratzea nahiko nuke. Pare bat aukera prestatzen badituzu nik nire gustukoena zein izango litzatekeen esango nizuke eta horrela bion nahia ase dezakegu. Goratu azken urte hauetan oso diru gutxi gastatu ahal izan dugula eta ondorioz dirua ez dela arazoa. Beraz, aprobetxatu eta zerbait polita presta dezakegu.

Besterik ez. Zure erantzuna lehenbailen jasotzea nahiko nuke. Besarkada handi bat.

Joxemi



PRODUCCIÓN Y COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

NOMBRE Y APELLIDOS:

Empty rectangular box for writing the name and surnames.



CLAVES DE RESPUESTA

COMPRENSIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

TAREA 1 STAR WARS

0	1	2	3	4	5	6	7
B	A	B	C	B	B	B	A

Egia/Gezurra

TAREA 2 NESKAK ETA MUTILAK

0	<i>Azaroaren 25a egun berezia izan zen heziketa fisikoko irakasle honen ustean.</i>	E	√
1	Aitor ziur dago egun horretan emakumeek ez dutela inolako jazarpenik izan.	G	
2	DBHko 4. mailako ikasleekin bigarren ebaluazioan bizi izandakoak partekatzeke eguna da.	G	
3	Egun horretan ikasleak dira zein material erabiliko duten eta nola banatuko diren erabakitzen dutenak.	E	
4	Ikasleek ezin dute hasieran aukeratutako jarduera utzi eta beste batean aritu.	G	
5	Mutilak futbolean ari diren bitartean neskek saskibaloia nahiago izan dute.	G	
6	Saioa nesken eta mutilen arteko norgehiagoka batean bukatu dute.	E	
7	Irakasleak guztiak baloi-eserian ikustean asko poztu dela esan genezake.	E	
8	Neska eta mutil arteko norgehiagoka horren helburua genero indartsuena nor zen erabakitzea zen.	G	
9	Futbolean oso ohikoa da horrelako jarduerak ikustea.	G	
10	Joko egitura gehien helburu nagusia da zein den azkarrena, zein den indartsuena... erakustea da.	E	
11	Zenbait jardueratan parte-hartzaileek dituzten jarrerak gizartean ikusten ditugun berberak dira.	E	
12	Munduko kirolaririk onena zein den pentsatzen dugunean gehienoi emakume baten izena datorkigu.	G	

TAREA 3 ARRETA

0	1	2	3	4	5	6	7
B	C	A	F	E	G	I	H
√							



CLAVES DE RESPUESTA
COMPRENSIÓN DE TEXTOS ORALES

TAREA 1

A	B	C
0	2	1
3	6	4
5		

TAREA 2

		EGIA/GEZURRA	
0	<i>Gaur jakin dira 2021eko Euskadi Literatura sariaren irabazleak.</i>	E	✓
1	Josean Elosegik Haur eta Gazte literaturako saria eskuratu du.	G	
2	Euskarazko literaturan saritutako liburua ELKAR argitaletxeak plazaratu du.	G	
3	Lizarraldeak idatzi duen liburua bideoklub eta zinemari buruzkoa da.	E	
4	Anjel Lertxundik idatzi duen liburua bilobek asmatutakoa da.	G	
5	Ipuinean ageri den zuhaitzaren helburua itsasoa ezagutzea zen.	E	
6	Datorren astean izango sari banaketa.	G	
7	Artium museoan erakusgai izango dira aipatutako nobela hauek.	G	
8	Etxartek kaleratu duen poema liburua idazle honek azken poema liburua izango da.	G	
9	Etxartek poema liburu hau bukatzeko hainbat urte behar izan ditu.	E	
10	Azken liburu honek ezer gutxi du aurreko liburuekin.	E	
11	Poemak denboraren arabera antolatu ditu.	G	
12	Laugarren liburua hamabost urte barru kaleratuko da.	G	

TAREA 3

0	1	2	3	4	5	6	7	8
A	B	B	A	A	B	C	A	C
✓								



PAUTAS DE CORRECCIÓN
MEDIACIÓN ESCRITA

Trasmitir información específica para que los trabajadores puedan realizar la declaración de la renta.

Expresar el plazo para la realización de la declaración de la renta.

Explicar las tres formas en las que se puede realizar la declaración.

Detallar los horarios de atención presencial de las distintas opciones.

Respetar el registro formal establecido en la tarea.



PAUTAS DE CORRECCIÓN
PRODUCCIÓN Y COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

Tarea 1

Expresar recomendaciones de las cosas que pueden hacer sus conciudadanos para ayudar en esta situación.

Explicar cuál es la situación de los niños.

Proponer ideas para mejorar su situación.

Pedir ayuda a las asociaciones y a los comerciantes.

Tarea 2

Saludar y despedirse como corresponde.

Proponer al menos dos planes que puedan gustar a tu amigo.

Describir cada una de las opciones.

Sugerir de entre las opciones la que más te gusta.



PRUEBA DE CERTIFICACIÓN-BLOQUE B

MEDIACIÓN DE TEXTOS ORALES

- Zure lagun batek arazoak ditu etxea txukun mantantzeko. Egunkarian irakurri duzun testu honetan hainbat baliabide ematen dira horretarako. Azal iezaiozu zure lagunari zer egin behar duen etxea txukun izateko eta bere bizimodua antolatzeke.

ETXEA TXUKUNTZEAZ HARATAGO BIZIMODUA ANTOLATZEKO METODOA

Etxean pilatzen diren arropa, liburu eta gainerako objektuen artean garbiketa egin, eta benetan behar dugunarekin geratzen ikasteak eragina du gure bizimoduan. Txukuntze-prozesu hori egitea, ordea, ez da batere erraza izaten, eta zeregin horretan laguntzeko *Konmari* metodoa erabiltzea izan daiteke irtenbidea. Duela urte batzuk egin zen ezagun metodo hori: etxea nola garbitu eta gauzak nola antolatu azaltzen duen teknika. Marie Kondo japoniarra da sortzailea, ordenan aditua eta idazlea. *Konmari* metodoari buruzko liburua idatzi zuen 2011. urtean, eta argitaratu zuenetik 30 hizkuntzatarara itzuli dute. Horregatik da ospetsua munduko txoko guztietan.

Amaia Elias barne-diseinatzaile azkoitiarra japoniarrak Londresen emandako hiru eguneko ikastaro batean izan da. “Etxea antolatzeke prozesua sortu du Mariek: gauza errazenetatik hasita, zailenetaraino aukeraketa bat egitea da helburua”. Amaiak berak egin du prozesua eta bere bezeroei ere horretan laguntzen die. Etxean sobera ditugun gauzak botatzeko, hainbat fasetako prozesua egiteko dio *Konmari* metodoak. Horretarako, objektu bakoitza esku artean dugunean, zorientasuna ematen digun edo ez galdetu behar diogu geure buruari.

Arroparen ostean, liburuen txanda da: “Ez dugu kopuru jakin bat gorde behar, zorientsu egiten gaituztenekin geratu behar dugu. Ondoren, etxeko paperena eta *komono* izena ematen zaion multzoarena egingo dugu. “Gainerako objektuak biltzen ditu *komono*ak: sukaldeko lapikoak edo komuneko makillajea, esaterako. Prozesua amaitzeko, artikulu sentimentalen artean aukeratu behar dugu: albumak, argazkiak eta guretzat balioa duten gauzak izaten dira. Zailena horixe da, nire ustez”.

PRODUCCIÓN DE TEXTOS ORALES (MONÓLOGO)

- Gaztaroa izango duzu mintzagai. Gaztetan lagunek zure jokabidean izan zuten garrantziaz arituko zara. Hauen aholkuek zentzuz jokatzera bultzatzen zintuzten ala zentzugabekeriak egitera bultzatzen zintuzten. Kontatu gaztetan egindako bihurrikeriaren bat.

COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ORALES (DIÁLOGO)

a.- HIZKUNTZAK ESKOLAN gaiari buruz arituko zarete. Zure ustez, umeak txiki-txikitatik eleaniztasunaren bidean murgildu behar ditugu, kognitiboki ikasteko momenturik onenean daudelako eta dena abantailak direlako. Zenbat eta hizkuntza gehiago ikasi txikitan orduan eta argiagoak izango dira gure seme-alabak.

b.- HIZKUNTZAK ESKOLAN gaiari buruz arituko zarete. Zure ustez, umeek ama-hizkuntzan ikasi behar dute txikitan eta gero poliki-poliki beste hizkuntza batzuk sartu behar zaizkie. Ama hizkuntzan ikasitakoa hobeto geratzen da eta gurasoek ere laguntzeko aukera izango dute.